

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Altsasuk Erradiologia zerbitzua du aste honetatik aurrera, eta herriko, Etxarri Aranatzeko eta Irurtzungo 23.000 biztanlek erabili ahal izango dute

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak milioi erdi eurotik gorako inbertsioa egin du beharrezko obra eta ekipamendurako

Astelehena, 2018.eko urriak 15

Gaur, astelehena, abian da Altsasuko osasun-zentroko Erradiologia Zerbitzua; era horretan, Altsasuko, Etxarri Aranatzeko eta Irurtzungo oinarritzko lekuetako 23.550 bat biztanlek ez ezik, zentroko Larrialdietara joaten diren gaixoei ere erabili ahal izango dute, beste osasun-zentroetara, eta bereziki Nafarroako hiriburukoetara, joan beharrik izan gabe. Zentroaren datuen arabera, egunero 15 erradiografia egingo dira.



Erradiologia sala berria ezagutu du Dominguez kontseilariak, Javier Olló, Altsasuko alkatea (ezkerretik hasita hirugarrena) eta Osasunetxeko zuzendari taldearekin.

Osasun kontseilaria, Fernando Domínguez, gaur goizean izan da erradiologia-gela aurkitzen den instalazio berrietan, eta harekin batera ondorengoak ere izan dira: Lehen Arretako zuzendari kudeatzailea, Santos Induráin; Altsasuko alkatea, Javier Olló; eta zentroaren zuzendaritza-taldea, M^a Mercedes Alberdi, zuzendaria; M^a Carmen Oyarbide, Erizaintza-burua; eta Edurne Arangoa, Harrera-burua, bestek beste.

Dominguez kontseilaria pozik agertu da Erradiologiako zerbitzu berria ezartzearekin; izan ere, osasun-laguntza eskuratzeko hobekuntza garrantzitsua da, joan-etorriak saihesten baititu eta Lehen Arretako taldeen erabakitzeko gaitasuna hobetzen asko laguntzen baitu. Azken horiei ere eskerrak eman dizkie haien ahalegin eta lanarengatik.

Erradiologia-ekipoa jartzeko, eraikina handitzeko obrak egin behar izan dira; hau da, 110 metro karratuko solairu berria eraiki da. Horrez gain, orain arteko espazioak berriz banatu dira, irisgarritasuna eta erabiltzaileen arreta nahiz profesionalen lana errazteko helburuarekin.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak guztira 530.000

euroko inbertsioa egin du; horietatik 328.047 euro handitzeko obretarako erabili dira, 197.890 euro X izpien aparatu digitala eta errobotizatua erosteko eta beste 4.075 euro gelako ekipamendua jartzeko. Zerbitzua abian jarrita, Altsasuko plantillan erradiologian espezialista den teknikari baten postua eta lanaldi murriztuko beste postu bat sortu dira.

Zerbitzuan erradiografia sinpleak egingo dira; hau da, batez ere patologia muskuloeskeletikoak (bizkar-hezurra barne) edo toraxen ingurukoak (katarro-prozesuak, pneumonia,...) baloratzekoak. Halaber, hain ohikoak ez diren beste erradiologia-mota batzuk egin ahal izango dira, garezur, aurpegi eta sabelaldekoak. Probak jada formatu fisikoan sortzen ez direnez, formatu digitalean eskuratu ahal izango dira, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sareko edozein puntutan ikus ahal izango dira. Artatzeko ordutegia 11:40tik 19:00etara bitartekoa izango da asteko egunetan, eta larunbata, igande eta jai-egunetan, 10:00etatik 20:00etara bitartekoa.

Erradiologia-zerbitzua Lehen Arretakoek eta osasun-zentroek erabakitzeko gaitasun gehiago izateko bultzaturiko ekimenen barruan sartzen da; modu horretan, gaixoek diagnostikoak azkarrago eskuratu ahal izango dituzte, joan-etorriak saihestearekin batera.